



# Txindoki igotzen marka berria jartzen saiatuko dira etzi

**EGUN OSOA** ▶ Iker Karrera amezketarra hogeita lau orduan ariko da Larraitzetik gailurrera igotzen ▶ 5



Txindoki mendia ahalik eta aldi gehienetan igotzen saiatuko da larunbatean Iker Karrera. OLAIA ESKITXABEL



JAIONE ASTIBIA

## Torrea elkarteak 10 urte bete dituela ospatuko du

**LEITZA** ▶ Egun osoko egitaraua prestatu dute abuztuaren 7rako ▶ 7



**TOLOSALDEA** ▶

## Bizkaiko akanpadara deitu du AHT Geldituk

Udalek informazioa «ezkutatu» dute ▶ 2

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

## Abuztuko jaietako prestakizunak burutzen ari dira

Egitarauak ari dira ezagutzen eta lan batzuk ere hasi dira egiten ▶ 3-4-6-7



JAIONE ASTIBIA

TOLOSA ▶ MENDIA

# Izozteak ere, hobera egiten

Ondo bidean, bihar bertan hel litezke Pasaban eta Oiarzabal Zaragozako erietxera

## IRATXE ETXEBESTE

Astlehenean lortu zuten azkenean Edurne Pasabanek, Juanito Oiarzabalek, Juan Vallejo eta Mikel Zabalezak K-2ren gailurrera igoetzea, eta kostatako igoerak baino kezka handiagoa sortu zien jaitsieratik herenegundik salbu direla, hobera ari dira egiten mendizaleak. Vallejo eta Zabalez ez zuten aparteko arazorik izan beharera, baina Pasabanek eta Oiarzabalek oinak izoztuta zizutela jakin ahal izan genuen atzo Euskal Herrian, eta euskal

herritarrek kezkatu egin zituen albisteak. Bada Pasabanek dituen izozteak uste baino arinagoak dira, eta Oiarzabalek ere ez omen zuten atzo arte oso larriak ematen. Atzokoan hobe beto aztertu ahal izan zituzten, ordea, eta oinetako izozteen larritasun maila «aintzat hartzeko modukoa» dela esan du *Al filo de lo imposible* saioko zuzendari Sebastian Alvarok. Oiarzabale ere tratamendua jarri diote, eta horrekin bere oinek hobera egingo dutela espero dute euskal espedizioako kideekin dauden sendagileek

eta lagunek. Hala eta guztiz ere, Oiarzabal oso nekatuta dago oraindik, K-2tik jaisten ari zela zailtasun handiak izan zituelako aurrera egiteko, eta tratamenduari esker hobera egin duela antzemango bada, Oiarzabalek atsedean hartzen duenean izango da.

Skardun ziren atzo Pasaban eta Oiarzabal —atzo iritsi ziren hara—, eta honezkero Islamabaden dira. Pakistango hiriburura helikopteroz eraman zituzten atzo bertan, gero hegazkinez Madrilera joateko. Hortaz, eta betiere eguraldia

lagun dela, bihar iritsi litezke Pasaban eta Oiarzabal Zaragozako MAZ erietxera, Kiko Arregi mediku espezialistak azter ditzan —bihar iluntzean edo gauean espero dituen Arregik Zaragozan—. Hala ere, herenegun Internet bidez izozteen irudiak bidali zituztenetik tratamenduan dira bi mendizaleak, eta haiek bezala, oinetan dituzten izozteak ere hobera ari dira egiten. Sebastian Alvarok esandakoaren arabera, Edurne Pasabanek behatzak ditu izoztuta, baina «jarri dioten tratamendua dela eta asko hobe-

tu zaizkio izozteak». Tolosarrak herenegun deitu zuten etxera, eta senitartekoei esan zenez, «oso nekatuta, baina ondo» dago.

## Elurretan etzanda, jota

Juanito Oiarzabal mendizale gasteiztarrak ez du K-2rako igoera berehalakoan ahaztuko, baina are gehiago gogoratu du gailurretik kanpaleku nagusirako jaitsiera. Pasaban eta Vallejo laugarren kanpalekura helduak zirela ez zen gasteiztarraren berririk, eta haren bila abiatu ziren Italiako mendizale batzuk. Elurretan etzanda eta konortea galduta aurkitu zuten. Haiek eraman zuten kanpalekura. Pasaban ere laguntzarekin heldu zen.

TOLOSALDEA ▶ AHT

# Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak Bizkaian egingo duten akanpadara deitu du

AHT egitasmoak eragingo dien udalek azpiegituren inguruko informazioa jaso dutela eta herritarrei «ezkutatu» egin diela dio

## I. ETXEBESTE

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako IX. Akanpada egingo dute Alonsotegin (Bizkaia) hilaren 30etik abuztuaren 8ra, eta AHTren Aurkako Asanbladak deia egin die herritar guztiei bertan parte hartzeko. Gauza bera egin du, bai-

ta ere, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak. Kanpaldia «elkargune soziala, parte-hartzailea eta komunikatiboa» izango dela, eta, besteak beste, asanbladak, hitzaldiak, tailerrak, mendi martxak, kontzertuak, festak, antzerkiak eta haurrentzako ludotekak egiteko aukera emango duela esan dute anto-

latzaileek, «AHT bezalako azpiegitura handiak indarrez ezartzen dizkigun politikaren eta ekonomiaren globalizazioaren aurrean sortutako dinamika sozial eta borroka ezberdinak ezagutzera emateko».

Hala, «makroproiektu horien atzetik dagoen egungo gizarte eta ekonomia ereduak ingurumenari eragindako harrapaketaren eta gizarteari eragindako kalteen aurrean, hausnartze kolektibo kritikoa» sortu asmo du AHTren Aurkako Asanbladak kanpaldiaren bidez. *AHT-rik ez, autoorganizazioa!* izango da aurtengo akanpadako goiburua, «egun eskuartean dugun zereginik garrantzitsuenaren gobernuetatik datorkigun inposaketari era autoorganizatuz aurre egin ahal izateko mugimendu indartsu bat bultzatzea» delako. «Ez gaituzten engainatzen utzi proiektuaren sasi aurrera-atzera horiekin, zeren protagonismo politikoa edota interesen arteko bigarren mailako gatazkak besterik ez baitira. Erakundeetako alderdiek, gobernuak eta ekonomia agenteak derizotenen proiektuarekin aurrera jarraitzeko kontsentsu garbia dute,



Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana taldekoak, kartelak jartzen. HITZA

beren interes ekonomiko neoliberalak bat datozelarik funtsean, herriaren nahien eta beharren gainetik». AHTren aurkako taldeek uste dute haien apustuak aurkako behar duela izan, «proiektu horiek guztiak geraraziz, eta, era berean, atzetik dagoen interes mataza konplexua eta berau bultzatzen duen eredu ekonomiko eta soziala gogorki salatuz». Begirada beste bizimodu, harreman eta ekonomia eredu batean jarrita egin behar da haien aburuz, «non berdintasuna, naturarekiko errespetua eta gure askatasuna izan daitezkeen oinarri».

## Kartelak jartzeko eskubidea

Tolosaldeko AHT gelditu! Elkarlanak kartelak jartzeko eskubidea aldarrikatu nahi du, bestalde. Izan ere, Tolosako eta Anoetako udalek haiek jarritako kartelak «kentzen» dizkiete, eta ekintza hori «gogor kritikatu» nahi dute, «taldearen ekin-

tzak eta informazioa gizarteratzeko bidea kartelak baitira neurri handi batean». AHTren aurkako taldeek uste du udalek «herritarren eskubideak zapaltzeko ez, eta haiek babesteko eta askatasunak bermatzeko erantzukizuna» duela.

AHT «Madrilgo eta Gasteizko gobernuetatik datorkigun inposaketa da» haien hitzetan, eta proiektu horretan Tolosaldeko udalek duten partehartzea salatzea dela irizten diote. Egitasmoak eragingo dien udalek «azpiegituren inguruko informazioa jaso» dutela, eta udalek informazio hori «herritarrei ezkutatzea bidezkoa ez» dela diote, «are gehiago, inoiz Tolosaldean egin nahi duten proiektu txikitzaileena gautzen bada, baserriak eta lurjabe asko eta asko kaltetuak izango direnean». Herritarrei, eta bereziki, baserriarrei eta lurjabeen udalengan dagokien informazioa eskatzeko deia egin die Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak.

**iragarki laburrak ▶**

**INMO f3** **RED** **INMO f3**  
inmobiliaria **RED** inmobiliaria

Gudari kalea, 9 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 75 • Faxa: 943 65 56 74  
E-maila: estudiotolosa@inmof3.net

<b>Tolosa.</b> San Frantzisko. Etebizitza altu eta eguzkitsua, toki ezin hobean. Dena kanpoaldera, 2 balkoi. 59.000.000 pta. 943 655675	34.000.000 pta. Altzariak barne. 943 655675.
<b>Tolosa.</b> Iurre. 2 logeladun apartamentua. Berritua. Trastelekua. 48.500.000 pta. 943 655675	<b>Tolosa.</b> Igaralde. 120m <sup>2</sup> -ko etxebizitza, erabat kanpoaldera. 4 logela. Eguzkitsua. 41.000.000 pta. 943 655675.
<b>Tolosa.</b> Zezen-plaza. 3 logeladun etxebizitza eguzkitsua. Berrikuntza behar du. 41.000.000 pta. 943 655675	<b>Ibarra.</b> Plazan. Etebizitza bikaina, argitsua eta eguzkitsua. Balkoia du. 36.000.000 pta. 943 655675.
<b>Tolosa.</b> Korreo kalea. 2 logeladun kapritxoko etxebizitza, eraberritua.	<b>Tolosa.</b> Santa Klara. 112m <sup>2</sup> -ko etxebizitza. Bizitzera sartzeko moduan. 45.000.000 pta. Informazioa: 943 655675.

JAIK ▶

# Abuztua ere, jai giroan

Eskualdeko herri askok ospatuko dituzte jaiak abuztuan; besteak beste, Adunan abuztuaren 7an hasiko dira festak, Zizurkilen 13n eta Hernialden 14an

**ERREDAKZIOA**

Uztailan jai giroa nabaria da eskualdean, Tolosaldeko hainbat herri beren jaiak ospatzen ari baitira. Baina abuztuan ere ez da festarik faltako han eta hemen: Aduna, Hernialde eta Zizurkil izango dira, esaterako, horren erakusle.

Adunan, abuztuaren 7an, ostirala, ekingo diete herriko jaiak, eta 16a arte, astelehena, iraungo dute. Denetik izango da aukeran: musika, kirola, jokoak, ohitura eta tradizioa... Abuztuaren 14a Umeen Eguna izango da, eta etxeko txiki-entzako ekitaldi ugari antolatu dituzte. Abuztuaren 16an, festetako azken egunean, oilasko biltzea eta oilasko jokoak egingo dituzte, besteak beste.

Hernialden, bestalde, abuztuaren 14an eta 15ean ospatuko dituzte Andramariak. Umeentzako jolasak eta bazkaria, herri afaria, trikitaliak, meza, sagardo dastaketa eta herri ki-



Zizurkilen abuztuaren 16an jokatuko dute Eskuz Binakako II. Pilota Txapelketako finala, Zimiterioan. GARAZI AZKUE

rolak izango dira nagusi aste-buru horretan.

Zizurkilen, azkenik, abuztuaren 13tik 17a arte iraungo dute jaiak. Saizarko Pedro Mari Elizagirrek, 2003ko Txapela Eguneko txapelkunak, piztuko du jaien hasierako suziria, 13an. Egun berean, XI. Kros Herrikoa eta herri afaria izango dira; afarirako txartelak salgai jarriko dituzte Zentroan. Hurrengo eguneko XV. Mus Txapelketarako izena ere eman ahal izango da bertan. Gauean, preso eta errefuxiatuak gogoa izango dituzte, musika giroan. Amabirjinaren egunean, Zizurkilen eta Idiazabalen arteko herri-kirol desafioa egingo dute; arratsaldean, XIII. Auto-Krosa, zizurkildarrentzat antolatutako proba. 16a baserritarrei zuzendutako eguna izango da, eta Eskuz Binakako II. Pilota Txapelketaren finala jokatuko dute, Zimiterioan. Oilasko jokoa festarekin amaituko dira, 17an, aurtengo jaiak.

TOLOSA ▶

## 'Txapela'-ren oroimenezkoa, finalean

*Txapela*-ren oroimenezko Paleta Txapelketa azken txanpara iritsi da; bihar, hain zuzen ere, jokatuko da finala, 19:00etan, Berazubiko frontoan. Asteartean, Zabaleta-Apeztegiak 20-30 galdu zuten Lakunza-Urdanpilletaren aurka. Yugueros-Artola bikoteak ere 20-30 galdu zuten Bengoaren eta Goitiaren aurkako partidak. Erredakzio hau ixterakoan finalerdiak jokatzen ari ziren, atzo. Renobales-Aldazabalek Lakunza-Urdanpilleta izan zituzten aurkari; eta, ondoren, Garmendia-Maiza eta Bengo-Goitia lehiatu ziren.

TOLOSALDEA ▶

## Galtzaundin kultur dinamizatzaile lanpostua

Galtzaundi Euskara Taldeak kultur dinamizatzaile lanpostua eskaintzen du, eta bihar da izena emateko azken eguna. Lanaldi erdiko behin-behineko kontratua egingo zaio dinamizatzaileari. Lanpostua lortu ahal izateko, hainbat baldintza bete behar dira: Tolosaldekoa izatea, kultur arloko eskarmentua izatea, EGA titulua edo horren balioekide baten jabe izatea eta gidatzeko baimena edukitzea. Kurrikuluma Galtzaundiko egoitzan utzi daiteke, edo postaz hara bidali: Galtzaundi Euskara Taldea. Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400-Tolosa. Posta elektronikoz ere bidali daiteke kurrikuluma, honako helbidera: [galtzaundi@galtzaundi.com](mailto:galtzaundi@galtzaundi.com).

TOLOSA ▶

## Laredora bidaia Harizpe elkartearekin

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak Laredora (Kantabria) bidaia antolatu du abuztuaren 27an. Tolosaldeko Laredora bidean, Saltacaballon egingo dute geldiduna. Laredon azoka bisitatuko dute, eta kalejira egingo dute Urdiña Txiki txarangarekin. Bazkal ostean, Loreen Gudara joango dira. Txangora joan nahi duenak izena eman dezake dagoeneko Harizpe elkartearen. Bazkideek 27 euro ordaindu behar dute, eta besteek 30 euro.

### EGITARAUA ▶ HERRIZ HERRI, EGUNEZ EGUN

**ADUNA**

**Abuztuak 7.**

14:00. Herriko jubilatuen bazkaria, Uztartza aterpebean.  
16:30. Adunako I. Trans-Ernio Esku Pilota Txapelketako finalak.  
23:00. Bielorrusiako Talaka taldearen dantza eta musika emanaldia.  
Ondoren. Iraunkorrek txarangarekin kalejira.

**Abuztuak 8.**

11:00. Herriko krosa.  
12:00. Sagardo dastaketa.  
14:00. Txekor jatea.  
Ondoren. Hernaniko dultzaineroak, eta toka herrikoia.  
21:00. Txekor jateko afaria.

**Abuztuak 13.**

19:00. Triki poteoa.  
20:00. Festen hasiera.  
20:30. Herri afaria.  
Ondoren. Patxi 1, 2, 3 taldearekin, goizaldera arte.

**Abuztuak 14. Umeen eguna.**

13:00. Argazki eta marrazki lehiaketako sarien banaketa.  
14:00. Umeen bazkaria.  
Ondoren. Ume jolasak.  
22:30. Bertsolariak: Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre, Jokin Sorozabal, Aitor

Usandizaga eta Joxe Agirre.  
Ondoren. Nekin taldea.

**Abuztuak 15.**

08:00. Diana txistulariekin.  
11:00. Meza nagusia.  
12:00. Axeri dantza.  
18:00. Herri kirolak.  
Ondoren. Adunako II. Txerritloia.  
22:00. Esku pilota partidak: Larrañaga-Legarreta eta Elurbe-Beloki. Erroizena-Oteiza eta Muguruza-Zapirain.  
23:30. Kontzertu gaupasa: Wasghert, Nok eta Idi-Bihotz.

**Abuztuak 16.**

Goizaldean. Baratzi zopa eta txokolatada, Txulobi elkartearen.  
06:30. Oilasko biltzaileen irteera.  
12:30. Oilasko jokoak.  
Ondoren. Dantza soka.  
Gauean. Oilasko jokoko afaria.  
Ondoren. Etxabe anaiak.

**HERNIALDE**

**Abuztuak 14.**

14:00. Umeen bazkaria.  
Arratsaldean. Ume jolasak.  
21:00. Herri afaria.  
Ondoren. Trikitaliak.

**Abuztuak 15.**

12:30. Meza nagusia.  
13:00. XIII. Sagardo

Dastaketa: Gaztañaga, Elubxeta, Barkaiztegi, Petritegi, Lizeaga, Isastegi, Rezola eta Sarasola sagardotegiekin.  
Arratsaldean. Herri kirolak: Mugerza anaiak, Aratz eta Ugaitz eta Urpe harrijasotzailearekin.  
Ondoren. Trikitaliak.

**ZIZURKIL**

**Abuztuak 13.**

19:00. Festei hasiera emateko suziria jaurtiko dute, Iriarte Ebeko balkoitik.  
Segidan. XI. Kros Herrikoa.  
20:30. Herri afaria, Zentroan.  
24:00. Laiotz taldea, goizaldera arte.

**Abuztuak 14.**

12:00. Buruhandiak.  
12:30. Kros Herrikoa haurrentzat.  
14:00. Bazkaria herriko haurrentzat, pilotalekuan.  
15:30-19:30. Puzgarriak eta zezen mekanikoa.  
16:00. Zizurkilgo XV. Mus Txapelketa, Zentroan.  
23:00. Preso eta errefuxiatuen gaua: Keyke, Kaotiko eta Triki Ta Ke taldeen kontzertua.

**Abuztuak 15.**

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Bukalai dantza taldearen emanaldia.  
Segidan. Herri kirolak: Zizurkil eta Idiazabal herrien arteko norgehiagoka.  
18:00. Zizurkilgo XIII. Auto-Krosa. Ttoto sari nagusia.  
Ondoren. Pultsulariak, plazan.  
23:00. Bertso saioa.  
Ondoren. Nekin taldearen musika saioa.

**Abuztuak 16. Baserritarren eguna**

12:30. Herri kirolen erakustaldia.  
Bazkaldu aurretik. Lur-lan produktuen dastatzea.  
Eguerdian. Jubilatuen eta herri kirolarien bazkaria.  
16:00-18:00. Kulki jolas festa, haurrentzat.  
18:00. Idi proba Plaza-Berrin.  
Ondoren. Barrikotea.  
23:00. Eskuz Binakako II. Pilota Txapelketako finala, Zimiterioan.  
Ondoren. Gau pasa Trakets dantza taldearen eskutik.  
06:00. Baratxuri zopa.

**Abuztuak 17.**

07:00. Oilasko biltzearen hasiera.  
11:00. Pottokak, haurrentzako, plazan.  
13:30. Oilasko Jokoa festa eta dantzaldia.

LARRAUL ▶ GIZARTEA

# Sanestebanak, asteburuan hasita

Pello Joxeppek emango die hasiera jaiari larunbatean; adin guztietako herritarrek izango dute parte hartzeko aukera

GARAIZ AZKUE

Larraulgo San Esteban jaiak iristear daude, urtero bezala. Pello Joxeppek emango die hasiera jaiari herrira jaisten denean. Larunbatean hasiko dira eta asteartera arte, hamaika edota dantzaldia dira, besteak beste, larunbaterako ekintzak. Gaueko herri afarian parte hartzeko, txartelak Ostatuan bertan eskuratu ahal izango dira.

Pello Joxeppek herria 20:30ean agurtuko badu ere, arratsaldean hasiko da festa. Mus txapelketa, herri afaria edota dantzaldia dira, besteak beste, larunbaterako ekintzak. Gaueko herri afarian parte hartzeko, txartelak Ostatuan bertan eskuratu ahal izango dira.

Igandean, pala txapelketaren ondoren, II. Tortila Patata Txapelketa izango dute herritarrek; tortila prestatzeko osagaiak norberak eraman behar dituzte. Arratsaldean, iparraldeko jokoak ikusteko aukera izango da. Bertso saioan, berriaz, Peñagarikano, Lizaso, Elorza eta Zubeldia bertsoak izango dira.



Elizatik jaitsiko da Pello Joxepe larunbatean. G. AZKUE

## EGITARUA ▶

### UZTAILAK 31

16:00. Mus txapelketa Katillubulo elkartearen.  
17:00. Esku pilota txapelketa haurrentzat.  
20:30. Pello Joxeperen jaitsiera.  
21:00. Herri afaria Ostatuan.  
23:30. Dantzaldia DJ Bull-ekin.

### ABUZTUAK 1

11:00. Pala txapelketako finala.

11:30. II. Tortila Patata Txapelketa.  
18:30. Herri kirolak.  
19:00. Bertso saioa.  
23:30. Erromeria Ansoregi eta Larrañaga trikitilariekin.

### ABUZTUAK 2

11:00. Puzgarriak egongo dira egun guztian zehar herriko frontoian.  
14:00. Haurren bazkaria Katillubulo elkartearen.  
16:30. Ipuin kontalaria.

23:30. Dantzaldia Nekin taldearekin.  
Goizaldean. Txokolatada.

### ABUZTUAK 3

11:00. Meza nagusia.  
12:00. Hamaiketako herrikoia Katillubulo elkartearen.  
13:00. Haur jolasak.  
18:30. Sagardo dastaketa: Aburuza, Zabala, Gaztañaga, Txertota eta Sarasola.  
22:30. Erromeria Etxabe anaiekin.

ADUNA ▶ KIROLA

## Adunako Trans-Ernio txapelketako finala

Asteburuan jokatu zituzten azken sailkapen partidak; finala abuztuaren 7an izango da



Adunako frontoian jokatuko dira finaleko partidak. G. AZKUE

G. AZKUE

Pasa den asteburuan jokatu ziren Adunako I. Trans-Ernio Esku Pilota Txapelketako sailkapeneko azken partidak. Partida hauetan sailkatutako bikoteek finala jokatu dute abuztuaren 7an Adunan, herriko jaien baitan.

Alebinetan, Les eta Txomin alkizarrak, Egiguren eta Galarragaren aurka irabazi zuten 16 eta 11. Castro eta San Sebastian adunarrek ez dute lortu finalerako txartelik. Goitia eta Gallurralde amezketarrek irabazi baitzuten 16 eta 11.

Infantiletan, Iraola eta Iraola bikote adunarra egongo da finalerako. Jauregi eta Aizpurua andoaindarrei 18 eta 5 irabazi ostean. Eta infantiletan, Mendinueta eta Otegi amezketarrek sailkatu dira, 18 eta 13 irabazi baitzuten Sukia eta Urruzola asteasurren aurka.

Eta azkenik, kadeteetan, Zabala eta Legarreta adunarrek irabazi zuten Irazusta eta Mujikaren aurka, 22 eta 10. Ropon eta Leunda bikote amezketarrek lortu zuten azken le-

kua finalerako, 22 eta 17 irabazi ostean Telletxea eta Galarraga bidegoiandarren kontra.

### Abuztuaren 7an finala

Abuztuaren 7an izango da txapelketako finala Adunako frontoian. Bertan bilduko dira, benjaminetan, Ansa eta Garin (Urnieta) eta Zelaia eta Labarka (Bidegoian) nor gehiago. Alebinetan, Les eta Txomin (Alkiza) Goitia eta Gallurralderen (Amezketeta) aurka arituko dira.

Infantiletan, Iraola eta Iraola (Aduna), Mendinueta eta Otegiaren (Amezketeta) aurka arituko dira.

Azkenik, kadeteetan, Zabala eta Legarreta (Aduna), Ropon eta Leundaren (Amezketeta) aurka arituko dira txapela lortzeko ahaleginetan.

Honenbestez, partida hauek jokatu ostean jakingo dugu nor irabazi dituen norgehiagokako txapelak aurten. Finaleko partida hauek abuztuaren 7an izango dira, 16:30ean hasita.

# www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorian agurrak...

## zorian agurrak bertan:



AMEZKETA ▶ MENDIA

# Marka berri bat jartzen saiatuko da Iker Karrera larunbatean

Hogeita lau ordutan Txindokiko tontorrera ahalik eta gehienetan igotzen saiatuko da amezketarra



Etzi, larunbatean, egingo du saioa Iker Karreraks. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Iker Karrera amezketarra Txindokiko marka berri bat jartzen saiatuko da etzi, larunbatean. Bere asmoa, hogeita lau orduko epean, Txindokira ahal bezainbestetan igo eta jaistea da. Ibilbidea Larraitzeko langatik tontorreko gurutzerainokoa izango da.

Larunbatean, 00:00etan hasi eta 24:00etan amaitzea du helburu amezketarrak. Horretarako gogor aritu da lanean: «Azken asteetan, oporrak Pirinioetan egin ditut, han mendi altuagoak daudelako eta entrenatzera begira ondo zetorkidako», azaldu du Karrerak.

Larraitzeko langan edateko eta jateko postua jarriko dute; ibilbidean nahitaezko gauzak besterik ez ditu eramango.

Froga ilargi betea dagoen egunean izango da, horrela, «gauean ere argi egongo da bidea», zehaztu du amezketarra.

Larunbatera begira, «gogorrenak azkenengo orduak

izango dira», zehaztu du. Hala ere, ez du aurrikuspenik egin nahi Karrerak: «Indartsu nagoela iruditzen zait, baina ez dut ezer aurreratu nahi; gauzak nola doazen ikusi beharko da».

Euskal Mendi Federakundeko ordezkariak Iker Karrera ahalegina bertatik jarraituko dute, beraz homologatze aldera: «Egindakoaren konstantzia izatea da gu egotearen helburua», azaldu du Antxon Bandresek, Mendi Federakundeko lehendakariak. «Askotan antzeko saiakerak zurrumurruean geratzen dira; oraingoan dokumentu bat egongo da gertatutakoaren adierazle», gehitu du.

Egindako saiakerak

Froga egiteko ideia Luis Mari Larreta amezketarrak saiakera egin zuenetik zuen buruan Iker Karrerak. Izan ere Larreta, hamasei ordutan sei aldiz igo zen Txindokira 2001eko ekainaren 23an.

IKER KARRERA  
AMEZKETA

«Indartsu nagoela iruditzen naiz, baina ez dut ezer aurreratu nahi; gauzak nola doazen ikusi beharko da»

IBON ARTOLA  
ANOETA

«Entzun dudanez bederatzia aldiz igotzen saiatuko da Karrera; lortzekotan oso zaila izango da gainditzea»

ANTXON BANDRES  
MENDI FEDERAKUNDEKO  
LEHENDAKARIA

«Egindakoaren konstantzia izatea da gure helburua; agiri bat egongo da gertatzen denaren adierazle»

Eskualdean ere badago besterik; Ibon Artola anoetarrak zazpi aldiz egin zuen tontorreko bidea 2001eko ekainaren 2an: «Bostgarren igoeran goragalea jarri zitzaidan; gogorra izan zen esperientzia», dio Artolak esperientzi gogoratzean. Karreraren saiakeraren inguruan: «Entzun dudanez bederatzia aldiz igotzen saiatuko da Karrera; lortzekotan oso zaila izango da marka hori gainditzea».

Antxon Bandresek beste hirugarren baten berri ere luzatu du: «Donostiar batek zortzi aldiz igo zuen Txindokiko gailurra orain dela hiruzpalau urte».

Lan gogorra du aurretik Karrerak amezketarrak; zer gertatzen den ikusi behar.

AMEZKETA ▶

**Aurrera darrai Joxean Tolosa txapelketak**

Honakoak dira pasa den asteburuan jokaturako partiduen emaitzak: Irastorza 18 - Lezaun 11; Eskudero 18 - Badillo 15; Loidi 9 - Azkune 18; Berrueta 18 - Zelaia 15; Iribar.O 18 - Unanue 3; Amutxastegi 16 - Iribar A 18; Errazkin (Anoeta) 18 - Errarte 4; Amundarain (Zizurkil) 0 - Aranburu II 18; Armendariz 18 - Arrizabalaga 6; Arruti 18 - Zabala (Anoeta) 2.

ORENDAIN ▶

**KZgunea itxita egongo da abuztuan**

KZgunean ezarritako helburuak oso emaitza onekin bete ondoren, irailetik aurrera errekurtsio murrizketa emango da. KZgunearen ordutegia 10:00etatik 12:00etara izango da eta herriko edonor joan daiteke nabegazio zerbitzua erabiltzera. Giltza udaletxean eskatu behar da. Abuztuan, berriz, itxita egongo da KZgunea.

ALTZO ▶

**Zikiro-jaterako hogeita hamar txartel daude**

Bihar hasiko dira Altzoko jaiak; 20:30ean zikiro-jatea izango da. Bertara joan nahi dutenek Arandia jatetxean eskuratu ditzakete txartelak 16 euroren truke. Guztira, 200 txartel jarri dituzte salgai baina dagoeneko «hogeita hamar besterik ez dira gertatzen», antolatzaileek zehaztu dutenez. Beraz, txartelak lehenbailehen erostea gomen datu dute.

ORENDAIN ▶

**Oroimena lantzeko tailerra Erretore Etxean**

Oroimena lantzeko tailerra egingo dute gaur 16:00etan adinekoek Erretore Etxean; adimena lantzeko teknika desberdinak egingo dituzte. Bestalde, abuztuaren 10 an, Aste Nagusian, arratsalde pasa, afaldu eta suak ikusi ondoren arteko irteera antolatuko da. Izena gaur eman daiteke Erretore etxean, 17:15tik aurrera.

ORENDAIN ▶

## Udalaren egoeraz mintzo Abian plataforma

Gau desberdinak jorratzen diren eskuorria banatu du plataformak herrian

O.ESKIXABEL

*Ken 3 gehi denak* titulupean informazio orria kaleratu berri du Abian plataformak herrian. Zortzi orritz osatuta dago eta atal desberdinak desberdintzen dira.

Udalaren egoera aztertzen dute plataformako kideek; bertan, besteak beste, udal hauteskundeak egin zirenetik «EAJ-k Orendain Abian plataformako zinegotziak hartu izana» salatzen dute.

Orduz geroztik eman diren gertakizunak ere azaltzen di-

tuzte: «Nahiz eta hitz politikak esan, ekintzetan kontrakoak azaltzen dute», diote, esaterako.

Udalbatzarrak hilero egitearen inguruan emandako hitza ere ez betetzea salatzen dute plataformako kideek: «egindako azken udalbatzarrak hiru hilabete pasa ondoren egin dute», diote.

Gaztea nahiz eta... atalean, «lokal baten beharra» azaltzen dute; hori lortzera begira udaletxera jo ondoren, «erantzunik ez zaigu eman», adierazten dute eskuorrian.

**HITZA, eskualdeko plaza**

Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

**661 678 818**

Toki aproposa iragartzeko

## IBARRA ▶

Otaño bigarren  
eta Mujika  
seigarren  
aizkoran

Astigarragan Bigarren Mailako Aizkora Txapelketan emaitza onak lortu dituzte

D. GIBELALDE

Jende dezente bildu zen astelehenean Astigarragan, Gipuzkoako Bigarren Mailako Aizkolarari Txapelketako finala ikustera. Sei finalista izan ziren bertan; tartean bi ibartar, Unai Otaño eta Jexumari Mujika. Otañok lau urte eman ditu aizkoratik kanpo, eta Astigarragan itzuli zen txapelketetara. Gutxiagatik ez zuen ezustekoa eman. Bigarren sailkatu zen, Xabier Orbegozo *Arria V.*aren atzetik, 18 segundora. Jexumari Mujika seigarren izan zen, garailearengandik 26 segundora. Bi txandatan aritu ziren aizkolaria. Lehenengoan Mujika, *Arria V.*a, eta Iriarte aritu ziren, eta bigarrenengoan Otaño, Esnaola eta Etxeberria. Bakoitzak lau kana-erdi-ko eta bi 60 ontzako enborrak moztu behar izan zituen.

## BERASTEGI ▶

Gaztainondon  
ikastaroetan  
aritzeko  
aukera

D. GIBELALDE

Gaztainondo Jubilatuen Elkar-teak ondoko ikastaroak emango ditu hurrengo ikasturtean: yoga, astelehen eta ostegunetan; eskulanak, asteazken eta ostiralean; taila, asteazkenetan. 2004-05eko ikastaroetan parte hartu nahi duen edonork Gaztainondoko egoitzan eman dezake izena, edo zuzendaritzako partaideren bati abisatu behar dio.

## iragarki laburrak ▶

## ETXEBIZITZA

**Tolosa.** Etxebizitza erosi nahi da Tolosan. Gubkinez 100 m<sup>2</sup> eta igogailua duena. Inmobiliariet ez deitu. 677 000005 / 943 67 10 20.

## BERASTEGI ▶ SAN LORENTZO JAIK

Abuztuaren 6ean hasita,  
ekitaldi ugari herriko jaietan

Koadrilen eguna, umeena, ezkonduena...bost egunetan izango da festa giroa



Poxpolo eta Mokolo pailazoak izango dira abuztuaren 9an. LEIRE MONTES



Izeta II.a eta Ostolaza. Herri kirolak, abuztuaren 10ean. D. GIBELALDE

## DANI GIBELALDE

Jai giroa lehertuko da Berastegin abuztuaren 6tik aurrera, Lorentzo Donearen jaiak ospatuko baitituzte herritarrek. Festako egitarau oparua prestatuta dute jadanik antolatzaileek; bost egunez izango da zer ikusi eta zer egin herrian.

Denbora askoan zai izan otean, txupinazoa izango da jaien iragarle. Koadrilek elkar nahastu eta ongi pasatzeko aukera izango dute larunbatean. Tortila lehiaketa, jolasak, plater tiraketa, eta sagardo dastaketa izango dira, besteak beste, horren lekuko.

## Disko festarako autobusa

Tolosaldea Busen eskutik, iaz bezala, larunbateko Disko festarako autobus zerbitzu berezia izango da. 23:30etik aurrera bi autobus irtengo dira Tolosatik; Berastegira bidean herrietatik geldialdiak egingo ditu. Era berean, Berastegitik Tolosara itzultzeko ere autobusak izango dira, 04:00etan eta 05:00etan.

Igandean afizionatuen pilota

partiduek, trikiti txapelketak eta herriko taldearen antzezlanak alaituko dute eguna. Umeen Egunean, aipagarria da Poxpolo, Mokolo eta Konpainiaren emanaldia; *Eskola eta festa* izeneko ikuskizun barregarria es-

kainiko du Tolosaldeko taldeak. Azken aldian, arrakasta handia izaten ari da pailazo taldea Euskal Herria osoan.

San Lorentzo egunean, herri kirolen saio bikaina ikus ahal izango da: Donato Larretxea

eta Floren Nazabal aizkolariek neurtuko dituzte indarrak; Joseba Ostolaza eta Joxerramon Iruretagoiena *Izeta II.a* harrija-sotzaileak izango dira ondoren, eta Iparraldeko jolasak izango dira amaitzeko.

## EGITARAUA ▶ SAN LORENTZO JAIK

## ABUZTUAK 6, OSTIRALA

**19:00.** Txupinazoa herriko festei hasiera emateko.  
**Ondoren.** Frontenis txapelketaren finalak.  
**22:00.** Herri afaria.  
**00:00.** DJ Bull, goizalderarte.

## ABUZTUAK 7, LARUNBATA

**Koadrilen Eguna.**  
**09:00.** Goiz deia.  
**10:00.** Koadrilek, txarangak lagunduta, etxex joango dira tortila egiteko osagaien bila.  
**12:00.** XI. Patata Tortila Lehiaketa.  
**Ondoren.** Egingako tortilen dastaketa.  
**15:30.** Plater tiraketa herrikoia.  
**18:00.** Koadrilen arteko jokoak.  
**Ondoren.** Sagardo dastaketa, bertsolari gazteek alaituta.  
**00:00.** Disko Festa, Imanol Lizasorekin.

## ABUZTUAK 8, IGANDEA

**09:00.** Goiz deia.

**12:00.** Afizionatuen pilota partidua:

- ▶ Arrebex-Urrezalki.
  - ▶ Olaetxea-Irureta.
  - ▶ Onsalo-Arraztoa.
- 17:30.** Trikiti txapelketa:
- ▶ Leire Zumeta-Amara Arza.
  - ▶ Beñat Luluaga-Lierni Garmendia.
  - ▶ Nekane Etxandi-Estibx Elgorriaga.
  - ▶ Maitane Aierza-Aiora Urdangarin.
  - ▶ Urko Pontesa-Izaro Saizar.
- Ondoren.** Herriko antzerki taldearen eskutik, *Ama begira zazu* antzezlan.
- 00:00.** Nekin taldearekin dantzaldia.

## ABUZTUAK 9, ASTELEHENA

**Umeen eguna.**  
**09:00.** Goiz deia.  
**10:30.** Puzkarriak eta jolasak goiz osoan zehar.  
**17:00.** Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoak. *Eskola eta festa* izeneko emanaldia eskainiko dute  
**Ondoren.** Zinta jokoak.  
**19:00.** Dantzari txikien emanaldia.

**00:00.** Laiotz taldearekin dantzaldia.

## ABUZTUAK 10, ASTEARTEA

**San Lorentzo eguna eta ezkonduena.**  
**09:00.** Goiz deia.  
**09:30.** Meza San Lorentzo ermitan.  
**Ondoren.** Hamarretakoa ermita ondoan, txalaparta soinuak alaiturik.  
**11:30.** Meza nagusia San Martin parrokian.  
**12:30.** Pilotariak: benjamin, alebin eta kadeteen arteko finalak.  
**18:30.** Herri kirolak.  
▶ Aizkolaria: Floren Nazabal eta Donato Larretxea.  
▶ Harrija-sotzaileak: Joseba Ostolaza eta Joxerramon Iruretagoiena, *Izeta II.a*.  
▶ Iparraldeko jokoak: Lapazaran-Tubi.  
**Ondoren.** Herriko nesken dantza saioa:  
▶ San Joan dantzak  
▶ Ezkonduen Dantza Soka.  
**00:00.** Joselu Anaiak taldearekin azken dantzaldia izango da.

## LEITZA ▶

**Bihar merkatua  
eskoletako  
zelaian izanen da**

Bihar, ostirala izaki, merkata, festa aurrean ohiko den moduan, Erleta eskolako harrizko futbol zelaian burutuko da, baita hurrengo bi aste-etakoa ere, gutxienez. Dagoneko merkatuaren ohiko kokalekua den herriko plaza eta inguruak ere, bailaduz itxita daude, santiburtzio festetan burutu ohi diren zezenketentzat. Hauek dirauten bitartean ere, beraz, lekuz aldatuko da merkata.

## LEITZA ▶

**Erabilitako olio  
bilketako txanda  
ere, bihar da**

Bihar hilabeteko azken ostirala denez, azken urteetako ohiturari jarraituz, erabilitako olio bilketako furgoneta, etorriko da eta, merkata ere lekuz aldatu denez, eskoletako atarian izanen da gunea. Biltzailea goizeko 9:00etatik aurrera izanen da bertan. Gero, 13:00etan, herriko auzoetan barrena ibiliko da, gunera eraman ezin izan dutenen olioak jasoz.

## LEITZA ▶

**Hainbat biztanle  
kexu dira gaueko  
bihurrikeriengatik**

Herriko hainbat biztanle kexu dira, Amazabal auzoan, herria bukatu eta Maimurrea bitarteko errepide zatian, gauetz, bertatik igarotzen diren ibilgailuei egiten dizkien bihurrikeriengatik: belatsotan gorde eta errepidetik igarotzen diren ibilgailuei, urez betetako puxikak botatzen omen dizkiete. Hautsi, ez dira hautsiko ibilgailuak, baina agian istripuren bat eragin bai eta ikarria eman ere bai.

## GIZARTEA ▶

**Zonaldekoak  
Lourdesera joan  
dira eskurtsioan**

Gaur, zonaldeko hainbat lagun, Lourdesera joan dira egun pasa. Gorrititik aterata da autobusa goiz-goiz, 7:00etan, eta, Leitza eta Aresoko bidaiariak hartu eta joanak dira egun osorako. Goizalderako itzuliko omen dira.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

# Torrea elkarteak 10 urte beteko ditu ireki zela; festa egingen da

Abuztuaren 7an egun osoko egitaraua  
dago prest ospakizunetarako

## JAIONE ASTIBIA

Torrea elkarteak 10 urte bete-ko ditu ireki zela eta hori ospatzeko, festa eguna antolatuko dute, abuztuaren 7rako.

1994ean, ireki zen urtean bezala, egun aproposa da urteurrenerako aukeratutakoa, festaurerako asteburua izaki, eta egun horretan antolatuta dauden ekitaldietara, bazkideak eta ez direnak ere gonbidatuta daude, izan ere aurreikusita dauden ekitaldiak herriko plazan eta kaleetan zehar burutuko baitira.

Bestalde aipatu behar da, egun horretako bazkarira joan nahi izanez gero, txartelak salgai daudela Torreean bertan eta 30 euroren truke. Ordainetan «bazkari ederra jasoko du: urdaiazpikoa, pateaa eta fritoak hasteko, hurrena baserriko oilaskoa edo axuria erretea, auke-eran, eta limoi sorbetea postretarako. Hau guztia, nahi haina edarirekin bustita eta kafe, kopa eta puruz bukatuta», ar-

gitu zuten festaren antolatzaileek. Txartelak erosteko epea, bezpera artekoa, abuztuaren 6rainokoa omen da, jakitera eman dutenez.

## Historia laburra

Torrea elkarteak 1994. urteko festa aurrean ireki zen, aurreneko solairuan egoitza eta baxuetan taberna-jatetxea izanik, herritar frankoren eginahal ekonomiko eta lanari esker. 100 bazkide inguru ditu eta herriko kultur eta gizarte mugimenduan lan egitea zituen sorrerako helburu.

Urteotan bere konpromisoari firme eutsi dio eta hainbat eta hainbat ikuskizun, mahai inguru, hitzaldi, erakusketa, ikastaro antolatu ditu, herri mugimenduen erreferentzialtasuna lortuz. Egun, markatutako bidean darrai, 2002ko abuztuan, festa ondoren, Garzonen aginduz guardia zibilak Torrea elkarteak egoitza zigitatu bazuen ere.



Torreak 10 urte ditu. J. ASTIBIA

## EGITARAUA ▶

2004ko abuztuak 7

## TORREA: X. URTEURRENA

12:00. Ekitaldia, plazan:

- ▶ Txalaparta.
- ▶ Ikurriñari agurra.
- ▶ Aurrekua.
- ▶ Aizkolaria.
- ▶ Hizlariak.
- ▶ Bertsolariak.

14:00. Bazkaria Torreean.

18:30. Elektrotuna taldearekin, kalejira.



## Heldu direla!... heldu direla!...

FESTAK ▶ Urte bete eskasaren burura, berriz ere festak heldu direla somatzen da Areso eta Leitza giron: jendea umoretsu dago, festetako ariak enkargatzen hasia da... Eta herriak ere beren aldaketaxoa jasaten ari dira,

plazan hesiak jartzen ari baitira, bi herrietako festetan egunero izanen diren xexenek izututa aldegin ez dezaten. Leitzan entzierroko bidea ere moldatuxe dute. Areson lan hau auzolanean egingen dute, asteburu hauetako batean. J. ASTIBIA

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**  
Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03  
**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Orendain.** Medikua: 65 55 95  
**Orexa.** Medikua: 68 22 28  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37  
▶ Asunzion Klinikak 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ Tolargi: 65 00 16  
▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20  
▶ Tolosa gasa: 67 53 20  
**Villabona-Aiztondo.**  
Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Tolosaldea bus: 65 06 21  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04  
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32  
▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888  
▶ Txolarre Irratia: 69 80 38  
▶ Karrape Irratia: 948 610914

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Bronte, Korreo kalea, 20, (Tolosa), 943 67 60 13.  
Larraia, Elbarren, 95, (Leitza).  
112

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaldea.** 687 41 00 22  
anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaldea.** 687 41 01 18.  
leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Orendain.** Oroimena lantzeko tailerrea Erretore ebekan 16:00. Hurkoa Fundazioak antolatuta.  
**Tolosaldea.** Presoen aldeko kontzentrazioak. Bihar ohiko toki eta orduetan. Etzi 11:45ean presoen aldeko kontzentrazioak errepideetan.

**JAIAK**

**Villabona.** Haur jolasak plazan 11:30etik 13:30era Oinkarik antolatuta; haur txirindularitza jaialdia Olaederra-Arroan 16:00etan; erraldoi eta buruhandiak 17:30ean; futbito txapelketaren finalak plazan 18:30ean; disko festa plazan 23:00etan eta DJ jaia Otsabiko parkean 24:00etan.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren San Inazio kontzertua plaza Berrian bihar 23:00etan. Dantzarako doinuak: tango, fandango, pasodoble... Gau Giro barruan.

**ZINE-KLUBA**

**Ibarra.** *El club de la lucha.* Plazan, udaletxe ondoko frontoian 22:00etan. Gaztebeak antolatuta.

# Lau zuhaitz gutxiago

**VILLABONA ▶** Asteburuan bota dituzte plazako lau platanondo; aspaldidanik ziren botatzekoak, baina jaietako eszenatokia jartzeko aurreratu du erabakia



Honela dago plaza lehengo asteburutik, kioskoarekin eta lau zuhaitz gutxiagorekin. GARAZI AZKUE

**JOXEMI SAIZAR**

**H** aserre dira batzuk Villabonan, asteburuan plazako lau platanondo bota dituztelako «Sociedad Alcoholicos musika taldeak taula handia eskatu duela-eta». Ekologia aldetik gero eta sentsibilizatuta gauden honetan, «txikizio» gisa definitzen zuten Ud-laren erabakia hainbat herritarrek.



Lehenago irudia, lau platanondoak bertan zirela. GARAZI AZKUE

HITZA Bakartxo Tejeria alkatearekin harremanetan jarri da erabaki honen arrazoiak argitzeko. «Aspaldidanik zegoen zuhaitz horiek moztuzko eta beste nonbait landatzeko asmoa, Komitazar parkean-edo, baina udal lorazainek itsasteko arazoak aurrikusten zituzten», dio. Gainera urtero txosnak jartzeko adarrak moztu egin behar izaten dituztela dio alkateak. Udaletxe barruari argitasuna kentzen ziotela ere aipatu du. Zuhaitzek «orokorrean» lurrean sortzen dituzten kalteak agerian utzi nahi izan ditu Tejeriak, «Oriamendin tuberiari hondatzen eta espaloiak leheritzen» esanez adibidetzat.

«Bestalde, egia da zuhaitz horiek kendu gabe ezingo zutela taldeak behar duen eszenatokia handi hori jarri. Sociedad Alcoholicos taldeko beste leku bat eskaini genien, baina beraiek plazan nahi zuten jo», esan du alkateak. Horrek lehenik zuten asmoa «bultzatu» egin duela onartzen du. «Badakit ez dela oso erabaki ekologista, baina ingurumena saileko arduradunekin hitz eginda, egokiena iruditu zaigu une honetan», adierazi du bukatzeko Bakartxo Tejeriak.

**ZORION AGURRAK ▶**



**ZORIONAK, URREZKO EZTEIAK**

**Martín Iturriza eta Brígida Insausti (Berrobi).** Abuztuaren 12an 50 urte elkarrekin, benetako baietza eman zientetik. Ondoko pasan egun gogoangarri hori. Muxu handi bat bihotz-bihotzez. Maite zaituztegu. Seme-alabak eta bilobak.



**URTE ASKOAN**

**Lourdes (Benta-Berri),** 56 muxu, zure senar, 4 seme, errain, erraingai eta 6 biloben partetik.



**URTE ASKOAN**

**Leire Lezeta (Ibarra).** Gaur 5 urte. Aitaba, amaiba eta Jon Anderren partetik.

**HITZA,**  
**zorion agurren**  
**tartea**

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,  
 ezkontzak, jaioberriak...  
 zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoitzara**  
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

**Mesedez, ekarri**  
**argazkia bi egun lehenago.**  
**Mila esker!**